



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

500 pertsona inguru igon dira Oiz mendira, dagoeneko ohikoa dan Batzarretarako deian parte hartzeko

Oizen, 2013ko bagilaren 2an

Eguraldia txarra izan bada be, 500 pertsona inguruk hartu dabe parte gaur eguerdian Oizko tontorrean egin dan Batzarreratako dei tradizionalen, Deiadarren Mendien Egunaren hamargarren edizinoan. Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatzen daben jardunaldi hori martxa klasikoa bilakatu da “mendia eta euskal ohiturak maite dituenentzat”, Ana Madariagak, Batzarretako presidenteak, Bizkaiko “balkoitik” adarren soinua entzun aurretik, adierazo dauenez.

Batzar Nagusiek 2004. urtetik antolatzen dabe jardunaldi hori, garai demokratikoan erakunde hori barrero martxan jarri zanetik 25. urteurrena bete zan urtetik. Ordutik, adin guztietako bizkaitarrek adarraren soinua entzun ahal izan dabe Bizkaiko bost deiadarren mendietako batetik (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz edo Ganekogorta), antxinatik Gernikan batzeko egiten zan deia gogoratu. Uste danez, batzeko dei hori Erdi Arotik egiten da.

Aurtengo edizinoan Durangoko Alpino Tabira mendi taldearen laguntzea izan dauen mendi martxa goizeko 09:00etan urten da Garaitik. Oiz mendiaren magaletan dagoan puntu horretatik, taldeetan banandutako partaideak, urten eta bi ordu t'erdi geroago heldu dira deiadarren mendiaren 1.026 metroetara. Hotzak eta behelaino trinkoak markautako jardunaldia izan da, eta mendizaleek ezin izan dabe gure Lurraldeak eskintzen dauen ikuspegi ederrenetakoaz gozatu.

Tontorrean, adarren soinua entzun eta gero, Batzarretako presidenteak eskerrak emon deutsez partaide guztiei, igoeran parte hartzeagaitik, eta datorren urtean be ohitureagaz jarraitzeko gonbidapena luzatu deutse Ganekogorta mendira egingo dan igoeragaz. Alpino Tabira mendi taldeko ordezkariak, egun horretarako beren beregi egindako adar ofiziala emon deutso, 2014. urteko igoerea antolatzeaz arduratuko dan Bilboko Gailurra taldeko ordezkariari. Ekitaldi sinbolikoaren ostean, tontorrean batutako bostehun pertsona inguruk deiadarren soinua entzun ahal izan dabe.

Bizkaiko Batzar Nagusiak ordezkatzuz, bertako presidentea, Ana Madariaga, Mahaiko idazkaria, Jon Andoni Atutxa, eta Jon Sánchez, Fernando Larrinaga, Ana Esther Furundarena eta Oscar Arana batzarkideak egon dira bertan. Beste erakunde batzuetako ordezkariak be bertan egon dira, Aitor Esteban, Bizkaiko Batzarretako presidente ohia eta Kongresuko diputatua, Oscar Zarrabeitia, Durangoko Mankomunidadeko presidentea, Gonzalo Sarrigoitia, Garaiko alkatea, edo Itsaso Atutxa, Bizkaiko EAJ-PNV-ko presidentea, besteak beste.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Jardunaldiari amaierera emoteko, jai txiki bat ospatu da tontorretik gertu. Partaideek sari txiki bat jaso dabe bertan egoteagaitik, eta gero, musikak, eta Kriskitin taldeak eskinitako Durangaldeko euskal dantzek alaitutako "hamaiketako" egin dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Medio millar de personas coronan el Oiz para participar en la tradicional llamada a Juntas

En Oiz, a 2 de junio de 2013

El mal tiempo no ha impedido que unas 500 personas hayan participado en la tradicional llamada a Juntas desde la cima del Oiz, en lo que ha supuesto la décima edición del Día de los Montes Bocineros. Esta jornada que organiza las Juntas Generales de Bizkaia, se ha convertido ya en una marcha clásica entre los amantes del monte y las tradiciones vascas. "Es un día especial para recordar cómo se comunicaban en el pasado para acudir a las Juntas", ha recordado la Presidenta de esta institución, Ana Madariaga, antes de oír el tañir de los cuernos desde el "Mirador de Bizkaia".

Las Juntas Generales organizan esta jornada desde el año 2004, coincidiendo con el 25 aniversario del restablecimiento de esta institución en la etapa democrática. Desde ese año, vizcaínos y vizcaínas de todas las edades han podido escuchar el sonido del cuerno desde alguna de las cinco cimas bocineras de Bizkaia (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz o Ganekogorta), emulando la llamada ancestral para reunirse en Gernika, como se cree se hacía ya en tiempos de la Edad Media.

La marcha montañera, que ha contado en esta edición con la colaboración del club de montaña Alpino Tabira de Durango, ha partido a las 9 horas desde Garai. Desde este punto situado a las faldas del Oiz, los participantes, divididos en grupos, han alcanzado los 1.026 metros de altitud del monte bocinero dos horas y media después, en una jornada marcada por el frío y una intensa niebla que ha impedido a los montañeros disfrutar de una de las mejores vistas del Territorio.

En la cumbre, antes de producirse el tañir de los cuernos, la presidenta de las Juntas ha dado las gracias a los asistentes por participar en la subida y les ha invitado a seguir con esta tradición el año próximo en el Ganekogorta. El representante del club de montaña Alpino Tabira ha entregado el cuerno oficial, realizado de forma expresa para este día, a la representante del club Gailurra de Bilbao que se encargará de organizar la subida de 2014. Tras el acto simbólico, el medio millar de personas congregada en la cima ha podido escuchar después el sonido de las bocinas.

En representación de las Juntas Generales han acudido su presidenta, Ana Madariaga, el secretario de la Mesa, Jon Andoni Atutxa, los junteros Jon Sánchez, Fernando Larrinaga, Ana Esther Furundarena y Oscar Arana. Han estado también representantes de otras instituciones como el ex presidente del Parlamento de Bizkaia y diputado en el Congreso, Aitor Esteban, el presidente de la Mancomunidad de Durango, Oskar Zarrabeitia, el alcalde de Garai, Gonzalo Sarrigoitia, o la presidenta del PNV en Bizkaia, Itxaso Atutxa, entre otros.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La jornada ha concluido con una pequeña fiesta celebrada cerca de la cima. Los asistentes han recibido un chubasquero por su participación -el tiempo acompañaba- y han disfrutado después de un "hamaiketako", amenizado con música y danzas vascas del Duranguesado a cargo del grupo Kriskitin.